

Eliza partikularra eta Eliz elkarteak Euskal Herrian

Paulo Agirrebaltzategi

Sarrera: Hiru gertakari Euskal Herriko Elizan

1.- Kontzilio ondorengo hamabi urteok ikusten baditugu, hiru gertakari nabarmen sumatzen ditugu euskal kristauen artean; ez dut esango gertakari hauk garrantzizkoenak eta nabarmenenak direnik, baina nabarmenak dira.

a) Oinharriko kristau elkarteak. Euskal Herri osoan sortu eta zabaldu dira; era eta joera askotakoak dira; baina hiru joera nagusitara bildu genitzake, eskema gisan: —Elkartearen muin eta oinharririk nagusiena, otoitzean eta liturgiazko ospakizunean senideartea sortzea eta bizitzea bezala ikusten dutenak; —gogoeta elkarteak, norbere fedea bizkortzeko eta argitzeko elkarrekiko gogoetari garrantzirik handienetakoa ematen diotenak; —konpromiso elkarteak, egoera sozial eta politikoen aurrean eta zuzengabekeriaren kontra, ebanjeliozko konpromisoak elkartean jokabide eta ekintza konkretuak hartzera jotzen dutenak.

Euskal Herriko Elizaren barnean beren dinamika eta garrantzia erakutsi dute; nahiz eta horien gorabeherak eta horien jokabideak berak fenomeno espektakularra izateko biderik ez eman, gaurko Elizaren barnean oso kontutan hartzeko dinamika adierazten dutela uste dut.

Joera batekoak nahiz bestekoak, beren arteko koordinazioa ere egiten saiatu dira, bereziki hirugarren joerakoak. Euskal Herri mailako batzarre nagusia bigarren aldiz aurtengo udaberrian egin zen Gasteizen.

Joera ezberdinekoak izanik ere, oinharriko kristau elkar-
teek bi puntu nagusi planteatzen dituzte Elizaren barnean:
1) Oinharriko elkar-
teak direnez, Eklesiologia bera oinharritik ikusten dute, eta ez gailurretik, nahiz eta elkar-
te batzuen eta besteen jokabideak ezberdinak izan iherarkiari buruz; 2) Bi-
garren berezitasun nagusi hau aurrekoarekin lotuta dago, eta zera da: Elizaren barnean, kristau guztien eskuhartze aktiboaren arazoa eta premia nabarmendu dute.

Beraz, Eklesiologiarako bi puntu nagusi jarri dituzte oinharriko kristau elkar-
teek: Eliza oinharrikoa eta Eliza par-
tizipatiboa.

b) Euskal Elizaren kontzientzia. Gero eta indartsuago eta zabalagoa da "Euskal Elizaren" eskabidea; hau da: Euskal Herriak bere nortasun historikoa, hizkuntzazkoa eta kultu-
razkoa baldin badu, eta horregatik bere nortasun politikoa eta ekonomikoa beharrezkoak baldin baditu, Elizaren aldetik ere bere nortasuna lortu behar duela, hots, bere Eliza propioa dagokiola. Euskal Eliza, ez euskara erabiliko duelako bakarrik edota gotzain euskaldunak izango dituelako bakarrik, eta bai bere instituzioetan, bere teologiazko gogoetan eta bere espresio liturgikoetan euskaldun izango dena eta Euskal Herri honen zerbitzutan izango dena.

Kontzilio garaian agertu zen artikulua bat, euskal gotzainen batasuna eskatzen zuena. Oraindik ere maila horretan ez da instituzionalpen legezkoa lortu, nolabait praktikan lortu baldin bada ere. Baina hordutik honuntza Euskal Elizarekiko kontzientzia eta eskabidea harutzago joan da: Euskal Eliza ez da mamituko eta agortuko Apezpikuen konferentzia (edo Eliz Probintzia) lortzearekin edota Erlijiosoen nagusien batasuna lortzearekin. Gaurregun Euskal Eliza esatean, askoz gehiago esan nahi da.

c) Erlijiosoen anaiarte (edo ahizparte) txikiak.

Kristauen artean oinharriko kristau elkarteak Parrokia haundien kontra bezala sortu dira; era berean, erlijiosoen artean, komentu eta etxe handien kontra bezala sortu eta ugaritu dira pisutan edo etxe txikitan bizi diren elkarte txikiak.

Goian kristau elkarte oinharrikoei buruz egin dugun analisi laburra hemen ere egin daitekeela uste dut: esanahi berberetsua bait dute erlijiosoen elkarte txikiek ere, Eklesiologiari eta erlijioso bizitzari buruz: hau da, oinharritik eta oinharrian eraikitzen den Eliza baieztatzen da eta Elizarentzat egitura partizipatiboak eskatzen dira. Esan dezakegu, esan ere, erlijiosoen elkarte txikiok benetan eraman dezaketela besteen izena bera: oinharriko elkarteak, alegia.

Areago, uste dudanez, oinharriko kristau elkarteen eta erlijiosoen elkarte txikien artean hurbilketa handi bat gertatzen ari da, eta behin baino gehiagotan gurutzatzea ere bai; izan ere, behin baino gehiagotan gertatzen da, erlijioso horiek oinharriko kristau elkartekoren batekoa izatea.

Eta hemen ere kezka eta zalantza agertu nahi dut; berehalako erantzunik emateko asmorik gabe.

Elizaren barnean muga eta definizio legalak eta instituzionalak erlatibotzen direnean, laikoen eta erlijiosoen arteko bereizketa gero eta nekezagoa gertatzen da. Horregatik alferrikakoa ote den nago erlijioso bizitzaren definizio teologikoa bilatu nahia.

Erlijioso bizitzaren mugak ez dira inola ere zehatzak teologiaren aldetik behintzat; eta horregatik mugatzea, hau da, definitzea, ekibokoa gertatzen da; orduan, erlijioso bizitzaren muntaia instituzional, legezko eta ideologikoa egitea ez ote da kaltegarri gertatuko?

Beharbada muntaia hori desmuntatzera datoz erlijioso elkarte txikiak eta kristau elkarte oinharrikoak: fenomeno

biak batera.

2.- Euskal Herriko Elizan gertaturiko hiru fenomeno hauk apur bat adierazi behar baldin baditugu Eklesiologiaren alde-tik adierazi, hategia, lehen esan dugun Eklesiologia partizipatiboaren bidetik doazela uste dut: hirurak.

Elizan 'ordezkotzaren' teologia eta praktika (teología y práctica de la representación) garaitu izan da mende luzetan. Aita santua, gotzainak, apaizak: Jainkoaren eta kristauen "bitartean" (ez gizonen "tartean") jartzen dira, jainkoaren ordezkari bezala kristauen aurrean eta kristauen ordezkari bezala Jainkoaren aurrean. Eta sistema honek Jainko Herriaren, kristauen pasibotasuna edo geldotasuna mantentzen du.

Kontzilioak berak, neurri batez, ordezkotzaren sistema hori astindu egin du, liturgian eta pastoraltzan, etab. kristauak tarteko izatera, parte hartzera bultzatuz.

Oinharriko kristau elkarteek eta erlijiosoen elkarte txikiek (eta nolabait 'Euskal Elizaren' fenomenoak ere bai) "tartekotzaren sistema" (Sistema de participación) hori areagotu, finkatu eta nolabait "ezarri" nahi dute Elizaren barnean.

Eliza barneko tartekotza sistema hau, gizartean bertan gertatzen ari den fenomenoarekin bat dator, uste dudanez. Izan ere, bai politikaren alorrean, bai lanaren alorrean, bai kulturaren alorrean, "ordezkotzaren sistema" krisian dago, eta gero eta indartzenagotzen ari dira "tartekotza sistema sozialak".

Auzoetako elkarteak eta batzarreak, autogestio sistema, eskola eta Unibertsitate herritarrak: fenomeno eta joera guzti hauek zera lortu nahi dute: gizonak beren buruen jabe izan daitezela eta beraiek erabaki dezatela beren bizitzetara eta gizarteko bizitzari dagokiona. Esan dezagun, ordezkotzaren demokrazia (nahiz eta demokrazia deitu) krisian dagoela, eta gure gizartea tartekotzaren edo partizipazioaren demokrazia-untz doala.

Guzti honekin zerikusi handia du nazionalitateen edo nazio ukatuen burrukak ere (Euskal Herriarenak ere), bere autonomia edo independentzia lortzeko.

Hiru fenomeno horik, eta hemen eman dugun horien azalpena, oso kontutan eduki beharko genituzke, Eliza partikularrari eta Eliz Elkarteei buruz hemen egingo dugun gogoeta egitean: nolabait oinharri eta abiapuntu izan nahi du sarrera honek, hemendik aurrera esango dugun guztiarena.

Bestalde, "Eliza partikularra" eta "Eliz Elkartek" biak gure erlijioso bizitzari eta Euskal Herriari begira egiten ditugu: bi horik ditugu, nolabait esateko, gure gogoeta osoaren helburuan bezala.

I.- Eliza partikularra

Eliza unibertsala: Kristoren Eliza katolikoa

Azken Kontzilio ondoren behintzat, teologoien artean ba dabil eztabaida bat, "lekuko Eliza" eta "Eliza Partikularren" arteko harremanari eta ezberdintasunari buruz. Hitzei buruzkoa ere ba dela uste dut: hau da, Diozesiaren eta beste-lako Eliza partikularren arteko harremanari eta ezberdintasunari buruzko eztabaida.

Dena dela, hemen ez dugu eztabaida horretan luzatzerik; Kontzilioak berak ez ditu bi hitzak bereizten; ondorengo Eliz dokumentuek ere ez dute bereizketa argirik egiten. Lehengo maiatzean Apezpikuentzako Kongregazioak eta Erlijioentzako eta Institutu sekularrentzako Kongregazioak, bien artean "Apezpikuek eta Erlijiosoek Eliza barnean dituzten harremanei" buruz eman zuten dokumentu luzean, gehienetan "Eliza partikularra" deitzen dute Diozesia; baina bi aldiz behintzat "lekuko Eliza" deitzen dute.

Nere ustez, Eliza partikularren (partikular bezala) eta lekukoaren (lekuko bezala), bien arteko bereizketa teologikoak ez du garrantzirik, eta sarritan egin ohi den bezala, egin ezinekoa dela uste dut gainera.

Guzti horregatik, gaurko gogoeta honetan "eliza partikularra" nahiz "Eliza lekukoa", biak erabiliko ditut esanahi berdinez.

Eskrituristak gaur egun ados datoz, "Eliza" hitzaren lehen esanahia ez zela edota mundu osoan eraturik dagoen Institutuzio handia, eta bai herri edo leku konkretu baten biltzen den eta bizi den fededunen elkarte: "Korinton dagoen Jainkoaren Eliza", benetako Eliza da, eta ez mundu zabalean hedaturik dagoen Eliza handiaren irudi hutsa; areago, Priskaren eta Akilaren etxean biltzen den fededunen elkarte ere "Eliza" deitzen du: "Etxe-Eliza" bezala.

Beraz, Eliza hitza aurrenik Eliza partikular edo lekukoari

dagokio. Gerora, Testamentu Berriak, eta S.Paulogan berak lantzen da beste kontzeptu bat Eliza hitzaren inguruan: hau da, Eliza unibertsalaren kontzeptua, batez ere Kristo Eliza unibertsal honen buru bezala agertzen duenean eta gauza guztiak beragan biltzekoak direla esaten duenean: unibertsalismo eklesiologikoa eta kosmikoa biak batera datoz.

Teologia tradizionalak mende askotan zehar ahazturik edo, utzi du "Eliza partikularra" kontzeptua, eta Eklesiologia osoa eraikitzeko, Eliza Institutio unibertsal handia hartu du oinharri bezala; Institutio horren erdigunea edo zentruztat, Pedroren eta honen ondorengo den Aita santuaren ministeritza hartu du.

Teologiak Eliza partikularra baieztatu behar du; eta baieztatze honek zera honetara eramango gaitu: Eklesiologia osoa berriz ikustera. Horretarako, hain zuzen ere Eliza unibertsalaren eta Eliza partikularren arteko harremana argitu beharra dago.

Aurrera joan baino lehen argitu beharra dago ere, Eliza partikularra edo lekukoa ez dagokiola aurrez-aurre Eliza katolikoari; alderantziz Elizaren katolikotasuna bera Eliza partikularren bidez ulertu beharra dagoela.

Izan ere, Eliza partikularra nolabait Eliza unibertsalaren kontrakoa da, kontzeptuen mailan: Eliza unibertsala mundu zabalean hedaturik dagoen Institutioa (eta kristau multzoa deitzen da); Eliza partikularra edo lekukoa, berriz, leku konkretu batetan dagoen eta bizi den fededunen elkartea.

Katolikotasuna, berriz, Eliza unibertsalari nahiz Eliza partikularri dagokio. Eliza unibertsala bezain katolikoa da Eliza partikularra ere, hau benetan Kristoren Eliza bait da.

Elizaren katolikotasuna bi aldetatik definitzen da: Kristoren Elizaren misterio osoa betetzen duen Eliza katolikoa da, hau da: Kristogandik hartu dituen Idazteunak, Sakramentuak eta Ministeritzak osorik dituen; alde honetatik, Elizaren katolikotasun hori substantziala dela esan genezake. Eta Eliza-

partikularrak, Eliza delarik, katolikotasun hori beregan du.

Baina katolikotasunak ba du beste esanahi historikoa ere: Elizak historian zehar burutu egiten du katolikotasun hori, gizonak, herriak eta hauen kulturak bereganatzen dituen heinean. Kristoren Elizaren katolikotasun substantzial hura dinamikoa da, beraz. Eliza partikular bakoitzak, herriaren berezitasun kulturazko eta historikoei erantzuten dien neurrian, Kristoren Eliza osatzen du. Alde honetatik, beraz, bere baitan ixten ez den Eliza partikularra, eta beste Eliza partikular guzti-ekin komunioan dagoena eta bere berezitasun eta balioekin irekia dagoena, Kristoren Eliza unibertsalaren katolikotasun historiko eta dinamikoa mamitzen ari da. Katolikotasuna osatzen ari da.

Ohar hau egin beharrezkoa zen, inork pentsa ez dezan, haseratik Eliza partikularra esatean Eliza katolikoaren kontrako zerbait adierazten ari garenik.

II.- Eliza partikularra edo lekukoa askotarikoa da

Eliza partikularra zer den eta nola definitu behar den erabaki aurretik, zernolako errealitateari ematen zaion izen hori ikusi beharrezkoa da. Nolabait Eliza partikular edo lekuko-koen tipologia bat egin beharra dago. Horretarako Batikano II. Kontzilioko dokumentuak erabiliko ditugu.

Bost errealiteri behintzat ematen die Kontzilioak Eliza "partikular" edo "lekuko" izena.

Hara zeintzu diren:

1.- Diozesia. Lumen Gentium Konstituzioaren 23. zenbakian eta berriro hitzegiten du "eliza partikularraz", Apezpikuei buruz ari delarik. Eta honela dio: "Apezpiku bakoitza Eliza partikular baten buru jarria izan denean...". "Ad Gentes" Dekretuak "Eliza partikularra" nahiz "Eliza lekukoa" deitzen du Diozesia.

2.- Patriarkatua. "Lumen Gentium" Konstituzioaren 23.

zenbakian, berriz ere, "Eliza lekukotzat" hartzen ditu Eliza patriarkalak. Ez ditu zuzenean teologi aldetik Patriarkatuak eta Apezpikuen Konferentziak berdintzen; hala ere, badirudi Kontzilioak nolabaiteko kidetasuna ikusten duela bien artean. Ekumenismoari buruzko Dekretuaren 14. zenbakian, Ekialdeko "Eliza partikular edo lekukoei" buruz edota "Lekuko Eliza" buruz soilki mintzatzen da: horien artean daude noski Patriarkatuak.

3. Errittoa. "Orientalium Ecclesiarum" Dekretuak Eliza partikularra eta errittoa berdintzat hartzen ditu, zera dionean: "Fededun hauek zenbait multzotan biltzen dira, Hierarkia-ekin bat eginik; eta horrela Eliza partikular edo erritoko osatzen dituzte".

4. Parrokia. "Presbyterorum Ordinis" Dekretuaren 6. zenbakiak, badirudi Eliza lekukoa deitzen duela Parrokia, zera esaten duenean: "Elkarte izpiritua egoki hazteko, izpiritu horrek Eliza lekukoa ezezik, Eliza unibertsala ere atxeki behar du". Hala ere ezin esan, hemen argi eta garbi parrokia Eliza lekukotzat hartzen duenik; esaten duena iheska bezala esaten bait du, eta ez berariz; izan ere, ez dio teologiazko zentzu berezirik ematen, edota "lekuko elkartearekin" berdintzen du. Hala ere, "Lumen Gentium" Konstituzioaren 28. zenbakian askozaz esplizitoagoa da Kontzilioa, lekuko elkartearen buru diren apaizei buruz mintzatzean. Hara nola dioen: "Artaldearen eredu gogoz izanez, beren lekuko elkartearen hala gobernatu eta zerbitu behar dute, elkarte horrek Jainkoaren Herri bakar eta osoaren, hau da, Jainkoaren Elizaren izen berberaz deitua izatea merezi izateko moduan"; eta pasarte berean S.Paulo, herri edo leku hartan edo honetan dauden Elizei buruz mintzatzen deneko aipamenak ekartzen ditu. 26. zenbakian Elizak deitzen ditu, baita ere, leku jakin batetan biltzen diren fededun elkartearen legezkoak baldin badira, nahiz eta gotzainaren presentzia esplizitorik ez ukan. Agian zenbait lekutako kristauen kontrako persekuzio eta eraso egoerei buruz ari da Kontzilioa: egoera horietan sarritan apezpikuak ez dauka tartean izaterik: hala ere, Eukaristiaren inguruan biltzen diren fededunek

benetan Kristoren Eliza osatzen dute, apezpikuarekiko lotura etenik ez baldin badute.

5. **Familia.** "Lumen Gentium" Konstituzio berberak, "Eliza" hitza ematen dio familiari ere, zeharka eta bildurrez bezala baldin bada ere: "Etxe Eliza" edo Eliza domestikoa deitzen du, 11. zenbakian. Hitz berbera erabili du Aita santu berriak, Joan Paulo I.ak, Kardinalai zuzendu dien lehen hitzaldian, munduko hainbat talde agurtzean, familia aipatu duenean.

6. **Oinharriko kristau elkartea.** San Paulok Priskaren eta Akilaren etxean biltzen den fededunen taldea Eliza deitzen du, nahiz eta talde hori Herriko Elizaren zati bat besterik ez izan, seguru asko, ez eta familia ez izan. Horrela biltzen den taldea eta gaurko "Oinharriko kristau elkartea" edota Erlijosoen komunitatea benetan Eliza dei genitzakeela uste dut. Dena dela, horien Eliza-izatea gerora hobeto ikusiko da, Eliza partikularrak edo lekukoak beregan behar dituen baldintzak aztertuko ditugunean. Eliza soilik deitu ala Eliz Elkarteak deitu oinharriko kristau Elkarte hauk, garrantzikoena zera da: horiek, elkarte edo talde bezala, zentzu eta egiteko bat izatea Eliza barnean, eta ez indibiduen edota instituzioaren funtzioa bakarrik.

Eliza partikularren tipologia horren bitartez zera argitzen da: Eliza partikularren edo lekukoaren kontzeptua ez dagokiola Diozesiari bakarrik. Era askotara agertzen eta mamitzen da, maila ezberdinetan.

Hala ere, teologia tradizionalan, Diozesiari bakarrik egokitu izan zaio ia beti Eliza partikularren edo lekukoaren kontzeptua, berak ere jite hori galdua ez zuenean. Sarritan gertatu da, gertatu ere, Diozesia bera Eliza zentralistaren zati administratibo eta juridiko bezala bakarrik ikusi izan dela, eta ez Eliza partikular edo lekuko bezala.

Dela dela, Eliza partikularra eta lekukoa Elizaren barnean eta Eklesiologia berri batez nabarmentzen ditugun honetan (Eliza unitariotik Eliza komunitariora igaroz), argi gelditzen

da Diozesia ez dela Eliza partikular edo lekukoaren eredu bakarra, nahiz eta Apezpikua Eliz egituren eta misterioaren erdigunean egon. Diozesia, bestelako Eliza partikular edo lekukoekin harreman dialektikoz bezala ikusi beharko genuke, edota nolabait Eliz nukleo diren bestelako Eliz Elkarteen batasun bezala; baina ez parrokien batasuna bezala bakarrik.

III.- Eliza partikularren definizio bila

Eliza partikularra edo lekukoa Diozesiaren argi hutsetan definitzerik ez baldin bada, eta haren tankerak eta ereduak hain ezberdinak baldin badira, zera argitu beharra daukagu: zeintzu dira oinharritzko elementu beharrezkoak, fededunen eta bataiatuen elkartearen benetan Kristoren Elizatzat hartuko baldin bada?

1. Eliza partikularren definizioaren elementu oinharritzkoak.

Aldez aurretik ez dugu eman nahi Elizaren definizio abstraktuen bat, gero Eliza partikular edo lekuko guztiei egokitu nahian edo. Hemen ez gara saiatuko Elizaren egitura sozialari buruz ere, Eliza partikularren eredu bakoitzak egitura hori nola betetzen duen egiaztatzeko edo.

Kristoren Elizak, eta Eliza horrek historian zehar hartzen duen edozein Eliz eredu, Kristoren Elizak duen oinharritzko egitura du oinharri bezala; edo Eliza partikularren edozein eredu oinharritzko egitura hura bete behar du, benetan Kristoren Eliza izango bada.

Hiru elementu nagusi eta konkretutan bana genezake Elizaren oinharritzko egitura, Testamentu Berriari jarraiki: Hau da, **Errebelazio, Komunioa eta Misioa.**

Kristoren Elizak hiru dohain horik ditu. Horregatik, Kristoren Eliza, Eliza partikularrean konkretatzen delarik,

Eliza partikularren edozein eredu oinharri-oinharrian egitura **profetikoa, komunionala eta misiolaria** du. Oiharrizko egitura honi erantzun beharko dio historian zehar Elizak har lezakeen edozein egitura sozialek.

Elizaren oinharritzko izate profetikoa, izate komunionala eta izate misiolaria historian, kultura konkretuan eta gizarte konkretuan konkretatzen direnean, **teologia berezia, Sakramentu-Liturgien** tankera berezia eta **Ministeritza** bereziak sortzen dira.

Elizak, beraz, izate profetikoa, komunionala eta misiolaria du. Elizaren oinharritzko egituraren hiru dimentsio hauk banan-banan azalduko ditugu:

a) Eliza **profetikoa**: Jainkoaren Hitza sinetsi eta horren testigutza ematen dutenen elkarte da. Eliza berez dago Jainkoaren Hitzari loturik; etengabe, gainera. Jainkoaren Hitza osorik ez onhartzea **herexia** da: Elizaren osotasunaren ukapena, beraz. Horrexegatik ere, Elizak Jainkoaren Hitza bere zerbait bezala hartu eta erabili egingo balu, nolabait bere burua ukatuko luke.

b) Eliz **komunionala** edo **komunitarioa**: Hau da, Jainkoak bere komunioaren partekide bihurtzen ditu gizonak eta hauen arteko komunioa sortzen, eta horrela Eliz **komunitatea** eraikitzen. Komunitate hau sakramentuen bidez agertzen eta mamitzen da bereziki, eta batez ere Eukaristiaren ospaketan. Eukaristiazko komunitatearen bidez mamitzen eta gauzatzen da Kristoren Eliza. Alde honetatik, Eliza partikularra Eukaristi Komunitatea da. Eta Eliza unibertsala, berriz, komunitateen komunitatea, edo komunitateen arteko komunitatea.

Komunitatea haustea **Zismaren** bidez gertatzen da batez ere; horregatik zisma Elizaren ukapena da nolabait.

c) Eliz **misiolaria**. Kristo, Aitak gizonak salbatzera bidali duen Hori da. Eta Kristo, Aitak bidali duen arabera, horrelaxe bidaltzen du Kristok bere Eliza mundura, salbamen sa-

kramentu bezala. Horregatik, Elizarentzat munduarentzako izatea ez da kanpotik datorkion joera hutsa, eta bai bere izaera osoa definitzen duen zerbait. Beraz, gaztelu batetan edo, bere burua ixten eta babesten duen Eliza, mundutik bere burua zaindu nahian edo, nolabait bere burua ukatzen ari da.

2. Eliza partikularra definitzeko erizpide ezberdina

Eliza partikular edo lekukoaren edozein eredu Kristoren Elizaren hiru dimentsio oinarrizko eta egiturazko horik bete beharra dauka. Baina eredu batetatik ala bestetatik abiatuz definitu Eliza partikularra, berehala nabarmentzen da, erizpide ezberdinetatik definitzen dela Eliza partikularra edo lekukoa bera.

Hain zuzen ere, hiru erizpide ezberdin bereiz genitzake:

- Hierarkiarekiko erizpidea
- Komunitatearekiko erizpidea
- Lekukotzearekiko erizpidea

a) **Hierarkiarekiko erizpidea.** Diozesiari eta Patriarkatuari dagokie bereiziki definizio mota hau. Honela definitzen du **Christus Dominus** Dekretuak Diozesia: "Jainko Herriaren zati bat da Diozesia, apezpikuaren ardurapean uzten dena, honek presbiteruen kolegioaren laguntzaz bazka dezan; eta honela Diozesiak, bere artzainari atxekirik eta Espiritu santuagan Ebanjelioaren eta Eukaristiaren bidez baturik, Eliza partikularra da: bere baitan benetan gertatzen da Kristoren Eliza, bat, santu, katoliko eta apostolutarra, eta bere baitan du eragina Eliza horrek" (11. zenb.).

Fr. Masson teologilariak ere honela definitzen du Diozesia: "Apezpikuaren ardurapean jartzen den Jainkoaren Herriaren zatia da, haren artzain bezala zain dezan". Zuzen-zuzenean, bada, Apezpikuari begira definitzen da hemen, Eliza partikularra deitzen den Diozesia. San Agustin Antiokia-koak oso nabarmendu zuen Eliza partikularren ikuskera hau. Hala ere, berak ez zuen Apezpikua hierarkiaren aldetik bereiziki ikusten, eta bai Eukaristiaren ministru bezala.

Diozesiari buruzko teologia hau oso ahantzia gertatu da gerora, Teologia tradizionalaren aldetik. Lehengo mendetik datorren Eklesiologiaren berrikuntzak suspertu eta nabarmendu berriz ere San Agustin Antiokiakoaren teologia.

Eliza partikularra definitzeko erizpide hierarkiko honek heltzen dio Patriarkatuari ere.

b) Komunitatearekiko erizpidea. Parrokia, edota familia, Eliza partikularrak direla esaten dugunean, ez gara hierarkiari zuzenean begiratzen ari, eta bai bataioaren, Eukaristiaren eta fedearen bidez bildu den fededunen taldeari. Honelatsu ikusten du S.Paulok Eliza partikularra, Korinton eta Erroman dagoen Elizaz mintzatzen denean.

Honelako Eliza partikularraren antzekoak dira, gaurregun "oinharriko elkarteak" deitzen ditugun horik, nahiz eta ez izan parrokiak. Era berean, erlijiosoen komunitateak ere, beren tradizio luzean, mami-mamian oinharriko elkartetzat jo beharra dagoela uste dut.

c) Lekukotzearekiko erizpidea. Kristoren gizon-egiteak ez du esan nahi, edonolako gizon egin zenik. Gizaseme konkretua da Kristo, bera jaio eta bizi eta gizondu deneko inguru sozio-kulturalak egindako gizon konkretua, alegia. Israeldarra da Kristo. Gizon, kultura baten barnean egiten da gizon Kristo.

Jainkoak kreatzen du Eliza. Baina ingurune sozio-kulturazkoren batean Kristoren Eliza kulturbarneratzen eta kulturztatzen denean, nolabait Eliza berri bat sortzen da. Horregatik ingurune sozio-kulturazko bakoitzari Eliza partikularra dagokio.

Erritoak, Eliza partikularra denez, honelako Eliza adierazten du, hain zuzen ere. Izan ere, liturgiaren aldetik, fede bizitzaren eta adierazpenaren aldetik, espiritualitatearen, instituzioen eta barneko disziplinaren aldetik berezitzen den Eliza partikularra da Errittoa.

3. Definizio enkarnazionala

Definizio enkarnazionala lekukotzearekiko erizpideari dagokio. Izatez, ikuspegi batetatik nahiz bestetatik definitu Eliza partikularra, hiru ikuspegiak bereiztezinak dira erabat. Baina Eliza partikularren partikularitasuna, bereziki horren lekukotze sozio-kulturazkotik dator. Edozein eredutako Eliza partikularrek berez darama sozio-kulturazko lekukotzea; alde horretatik, edozein ereduak dauka zerikusirik lekukotzearekiko erizpidearekin, benetan Eliza partikularra leku eta ingurune sozio-kulturazko konkretu batetan bizi den eta mamitzen den elkarte baldin bada.

Horregatik esan ere esan daiteke, Eliza partikularra definitzeko hiru erizpideen artean, oinharrizkoena lekukotzearekiko erizpidea dela, lekukotzeak ematen bait dio Eliza partikularrari bere partikular—edo “lekuko”—izatea.

Honela, bada, Eliza partikularren edo lekukoaren definizioa eman nahian zera esango genuke: Jainkoaren Herriaren leku sozio kulturazko jakin bateko presentzia eta eragina dela Eliza partikularra; “leku” jakin horretan, Jainkoaren Hitza era bereziz azaltzen da, kulturak berak eskaintzen dituen sinboloen arabera; liturgia eta sakramentuak era bereziz mamitzen eta gauzatzen dira, herriaren dinamika sozio-kulturazkoaren arabera; Elizaren herriarekiko zerbitzuak eta ministeritzak tankera berezia hartzen dute, herriak berak bizi duen dinamika sozio-kulturazkoaren, ekonomikoaren eta politikoaren arabera.

Jakina, Eliza partikularrera hurbiltzea besterik ez da hau. Benetakoa definizioak ezingo luke alde batera utz Kristoren Elizaren elementu hierarkikoa, ez eta elementu komunitarioa ere.

Definizio moduko hori konkretatuz, zera esan behar da: Eliza partikularra bere **Teologia propioak**, bere **Liturgia propioak** eta bere **Ministeritza propioek** definitzen dutela, horietan konkretatzen eta instituzionaltzen bait dira Elizaren oinharrizko dimentsioak: Hitza edo Errebelazio, Komunioa eta Misioa. Bere teologiazko gogoeta, bere liturgiako expre-

sioa eta bere ministeritza "funtzionalak" landu behar ditu Eliza partikular bakoitzak. Horien bidez definitu ahal izango du bere burua.

Baina Eliza partikularrak, Elizaren lekukotzeari begiratzen baldin badio bere partikularitasuna definitzeko, ez dauka ahanzterik Kristoren Eliza dela, eta Eliza horren misterioa mamitzen duela, benetan Eliza izango baldin bada. Alde honetatik —eta Eliza partikularraren definizio sakondu nahian— zera esan behar da: Kristoren Elizaren kontzentrazioa bezala dela Eliza partikularra, eta bere nortasun berezia edo identitatea, ingurune sozio-kulturazko errealitatea bereganatzean lortzen duela, horrela kultura partikularra, beronen balio, arau eta adierazki eta guzti, Eliz errealitatean konfiguratzen dituelarik.

IV. Erlijosoen Komunitateak oinharriko Eliz Elkarte bezala Euskal Elizaren barnean.

Erlijosoen komunitate konkretua Eliz elkarte ote? Kontzilioak berak "etxe-Eliza" deitu du familia; berdintsu dei genitzake noski, azken urteotan Eliza barnean hain garrantzi handia hartu duten "oinharrizko Kristau elkarteak", bai eta "erlijiosoen komunitateak" ere. Hala ere, oraingoz behintzat, benetako "Elizak" deitu beharrean, "Eliz elkartetzat" bakarrik hartuko ditugu. Hemen jakingarriena ez dugu horiei dagokien titulua, eta bai horien lekua eta egitekoa Diozesiaren aurrez-aurre eta Diozesiaren eta Euskal Elizaren barnean: bai Diozesia, eta bai Euskal Eliza, Eliza partikularizat hartzen bait ditugu, aurrena erizpide hierarkikoaren ikuspegikoa eta bigarrena erizpide enkarnazionalaren ikuspegikoa.

Erlijosoen elkartearen "eliztasuna", berriz, ikuspegi komunitarioari dagokio zuzen-zuzenean.

1. Erlijosoen komunitatea eta Diozesia

Garrantzizkoa da, erlijiosoen komunitateak zuzen-zuzenean Elizaren ikuspegi komunitarioari erantzuten diola baieztatzea. Izan ere, gaurregun besterik da kongregazioen

itxura. Instuzio handi bezala ikusten dira gaurregun Erlijio-soen kongregazioak. Baina, uste dudanez, erlijio-soen komunitateen eliztasuna ez du, horik biltzen direneko instituzio handiak definitzen, eta bai horien komunitate-izateak; horrela Elizaren komunitate ikuspegia nabarmentzen dute erlijio-soen komunitateek, oinharriko kristau elkarteek bezala.

Sortzez, erlijio-soen kongregazio asko eta asko oinharriko komunitate edo elkarte bezala sortu dira; gerora etorri da horien instituzionalpena, Eliza-instituzioaren barnean.

Horregatik, Erlijio-soen komunitateen eta Diozesiaren arteko harreman teologikoa ez da instituzio mailakoa: hau da, ez da Erlijio-soen Probintziaren eta Diozesiaren artekoa, eta bai Diozesiaren komunitate erlijio-soaren artekoa. Komunitatea da, hain zuzen ere, Instituzio erlijio-soen nukleoa. Horietatik abiatuz, eta horien "eliztasun komunitarioa" baieztatuz, errazagoa izango da Diozesiaren eta erlijio-soen arteko harremana argitzea eta konpontzea: teologi aldetik behintzat. Ez dago zalantzarik beti izango dela tirabira praktikorik; eta normalak dira tirabira horik, Kristoren Elizaren barnean tirabirak bidezkoak direlako.

Elizaren ikuspegi komunitarioa bereziki baieztatzen dutenez, Eliz Hierarkiari, eta bereziki Diozesiari buruz tirabira dialektikoan daude etengabe erlijio-soen elkarteak, berenez. Hauek ez dute beren sorrera apezpikuaren ministeritzatik, Kristoren Elizan bizi den Espirituaren eraginetik baizik. Horregatik, Diozesi barruan Eliz komunitate autonomoak dira. Eta beren autonomiari eutsi behar diote, Diozesi-instituzioak irents ez ditzan.

Autonomia eta tirabira eklesiala: biek adierazten dute komunitate elkarrearen eta diozesiaren arteko harremana. Era horretan bizi eta mamitu behar dute Apezpikuarekiko komunioa ere.

Zalantza eta eztabaida konketuak, ordea, bizitza konkretuan sortzen dira, eta bereziki pastoraltzaren antolaketan. Komunitate erlijio-soen joera nagusiak ez du izan behar

Diozesiaren plangintzaren barruan sartzea; okerragoa litzateke erlijiosoek Diozesiaren plangintza pastoralaren aurrez-aurre beste aukeraren bat ematea, Diozesiaren beraren maila instituzionaletik edo. Erlijiosoon egitekoa, Diozesiaren barruan, oinharriko elkartearena da; Diozesiaren aurrez-aurreko instituzioarena egiten hasten garenean, orduan konponezineko arazoa gertatzen da erlijiosoen lekua eta egitekoa Diozesiaren plangintza pastoralean. Bereziki, erlijiosoen instituzioaren (edota Probintziaren edo Komentuaren) "exenzioa" delakoa tartean jartzen denean.

Elkarte erlijiosoek, beren jokabidetik zera adierazten dute: Elizaren eta honen pastoraltzan ez dagoela dena plangintza instituzional edo hierarkikoan agortzerik. Elizaren pastoralgintzak duen alderdi karismatiko-profetikoa nabarmendu behar dut komunitate erlijiosoek. Bide horretatik joan direla uste dut, erlijiosoek "beren aldetik" herri misioak eman dituztenean eta herriz-herriz predikatzen saiatu direnean. Pastoral-tza instituzionala (Diozesiarena nahiz parrokiarena), berez ez dago noski, komunitate erlijiosoak daraman ekintza aske eta profetiko-karismatikoaren kontra, eta bai tirabira dialektiboan.

Komunitate erlijiosoak benetan Diozesiaren barneko komunitateak dira, baina beren egiteko berezia dute Elizaren misterioaren dimentsio berezi bat bizi eta agertuz, bestelako oinharriko kristau elkarleen bidetik, hain zuzen ere. Diozesia bera komunitate-nukleo ezberdinen batasuna bezala da, alde batetik, eta, bestetik, Instituzioa da, Apezpikua erdigune duelarik.

2. Erlijiosoak eta Euskal Eliza

Euskal Eliza, Eliza partikular edo lekuko bezala nola defini genezakeen, etab., orain ez gara horretan ihardungo. Euskal Herririk, bere kultura eta guzti, baldin bada izan, horretatik euskal Elizak sortu behar duela esan genezake, orain arte nabarmendu nahi izan dugun guztiaren arabera.

Une honetan, eta datozen urteetan, Eliza hori, Euskal

Eliza hori nola mamitu behar dugun pentsatzen ari gara. Aspaldiko urteetan Loiolan Eguberri aldian bildu izan diren erlijiosoen oso gogotan eduki izan dute arazo hau.

Zein da, orduan, erlijiosoen —hobe esan, komunitate erlijiosoen egiteko berezia eta jokabide propioa, Euskal Eliza jatorra eraikitzeke eta mamitzeke?

Erlijiosoak aipatzean, sarritan mundu zabalean banaturik dabilzan gizon edo emakume multzo handi horri begiratu ohi diogu; areago, multzo handi hori biltzen duen Institutuzioari begiratu ohi diogu: Ia-ia lekuri eta denborarik gabeko Institutuzioa, hain bait legoke, lekuan lekuko baldintza sozio-kulturazkoetatik aparte. Aita santuaren zerbitzurako... Alde horretatik, erlijiosoak Elizaren unibertsaltasunaren zerbitzurako bezala ere ikusi izan dira, Diozesiaren aurrez-aurre, edo horik ez bezala edo.

Uste dudanez, komunitate erlijiosoa den nukleo horretatik begiratzen badiogu bizitza erlijiosoari berari, orduan gure ikuspegia aldaturik gelditzen da. Eta berehala esan beharko dugu, komunitate erlijioso hori ingurune sozio-kulturazko konkretuan txertaturik abiatzen dela. **Ad Gentes** Dekretuan sarritan esaten da horrelakorik, Misioetako lurraldeetan sortzen diren komunitate erlijiosoei buruz; berbera esan beharra dago beste edozein ingurune sozio-kulturazkoei buruz ere.

Orduan, zer esan Erljiosoen probintziei buruz? Komunitate erlijiosoen batasuna baldin badira Erljiosoen Probintziak, esan beharra dago, horiek lekuan-lekuko unitate sozio-kulturazkoei erantzun behar dietela, eta nolabait horien arabera eratu behar direla. Alde honetatik dator "Euskal Probintzia erlijiosoen" aldeko eskabidea ere.

Beraz, bizitza erlijiosoak, honela begiraturik, ez du, kokatzen deneko ingurune edo mundutik alde egiten, bertan konkretatzen eta mamitzen baizik. Erljiosoen komunitateak benetan kultureztatu egin behar du, kulturaren alor osoan: sozio-kulturazkoan, ekonomikoan, politikoan...

Euskal Eliza eraikitzean, Apezpikuak ari dira, azken urteotan, beren arteko batasuna mamitzen, oraindik ere instituzionaldu ez baldin badute ere; era berean, Diozesien arteko erakunde euskaldunak sortu dituzte: liturgiaren alorrean, pastoraltzaren alorrean, etab.

Erlijosoen Probintzialeek ere beren arteko batasun modukorik sortu dute, Hegoaldeko Euskal Herriaren mailan behintzat.

Instituzio eta erakunde mailako Euskal Eliza sortuaz joan beharko da noski, benetan Euskal Eliza honek egitura historiko osoa izango baldin badu. Baina Euskal Elizaren mamitzean, erlijiosoek egiteko bereziena bestelako bidetatik doala uste dut. Komunitate erlijiosoek egiteko espezifikoa, Euskal Eliza "berria" sortzean eta indartzean, oinharriko kristau elkarteak indartzean eta ugaritzean dagoela esango nuke. Horrela, Euskal Elizaren oinharriko batasuna sortuz joango dira. Eta seguru asko, oinharriko batasun hori beharrezkoagoa da Euskal Eliza mamitzeko, instituzio eta egitura mailakoa bera baino. Oinharritik kristau komunitateen komunitate bezala sortzen eta indartzen baldin bada Euskal Eliza, Euskal Herriaren dinamika sozio-kulturazkoan, ekonomikoan, politikoan eta erlijiozkoan txertaturikoa, orduan finkapen handiagoa izango du Euskal Elizaren, Euskal Apezpiku Konferentziak edota Euskal Erlijosoen Probintziek, etab.

Orain arte esandakoa nolabait laburtzeko, eta guztion goetarako luzagarri bezala, hiru puntu hauetara bilduko nuke, Euskal Elizari buruz Erlijosoei luketen egitekoa:

Euskal Erlijosoei Euskal Eliza **herritarra**, Euskal Eliza irekia (beste Eliza partikularrei buruz, halegia) eta Euskal Eliza **batua** (euskal gizarte desintegratu honetan Herriaren batasun kritikoa aitortu eta eragingo duen Eliza batua): Hortik doala uste dut Euskal komunitate erlijiosoek egitekoa.